

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektuaren zati erakargarriena aniamliak dira, hauek asko maite eta errespetatzen ditugulako eta animaliek merezi duten bizi-kalitatea eman nahi diegu. *Pawsome Rescue*-n parte hartzen dugun kideak uste dugu gure bezeroak eta hornitzaileak proiektuaren ezinbestekoak direla, hauek gabe ezingo genukeelako ezer egin. Hori dela eta, zehaztu behar dugu gure hornitzaile eta bazkideak eta zergatik hain garrantzitsuak diren gure proiektua aurrera eramateko.

Proiektu hau aurrera eramateko hornitzaile- eta bazkide-sare bat behar dugu. Aplikazioaren hornitzaile nagusia Appsheet izango da. Gure zerbitzuak eman ahalko dugu zerbitzuaren hornitzaileei esker, kasu honetan, bezeroak direla. *Pawsome Rescue*-ren bezeroak animaliei buruzko informazioa eskainiko digute eta, horrela, animaliak errezago erreskatatu ahalko ditugu. Baita zerbitzuaren hornitzailea elkarteak izan daitezke, elkarte horiek animaliz beteta daudenean gure APP-an abisua eman ahalko dute bezeroak jakin ahal izateko, ondorioz, elkarte hauetako animali batzuk adoptatu ahalko dituzte eta aldi berean, elkarte lagunduko dute espazioa irabazten kalean dauden animali gehiago elkarteko instalazioan bizi ahal izateko denbora tarte batez. Gure proiektuaren alde garrantzitu bat bazkideak dira, kasu honetan Gasteiz Udaletzeko Animaliak Babesteko Zentroa gure bazkide bat izango da, beste elkarteekin batera, esate baterako: *APA SOS*, *asociación protectora de animales BETILAGUN*, *ATEA Asociación para un Trato Ético con los aniamles* eta *Esperanza Felina*.